

## ATXURKULU (OGOÑO) PR BI-165



Ogoño Elantxobe eta Ibarrangelu udalerrietan zehar hedatzen den lurmuturra da. Berez, gailurraren izen zuzena Atxurkulu da, Ogoño lurmuturraren izena liteke beraz. Lurmutur ikaragarria da eta Kantauriar itsasoaren gainetik toki batzuetan 200 metroko altuera duen pareta tzarrez mugatuta dago. Bertan hainbat eskalada bide daude. Lurmuturra artadi itxi batez inguratuta. Artadia, Euskal Herrian dagoen ohian bakarra da eta bertan hainbat basabizitza dago: basurdeak, azeriak, orkatzak, miruak, beleak, ontzak...

Tontorreko ikuspegia zoragarria da, gure oinen azpian Laga hondartza izango dugu eta aurrez aurre Izaro irla. Leku liluragarria benetan.



### **IBILALDIAREN ZEHETASUNAK:**

Ibilbidea Ibarrangeluko elizatik hasten da. Errepidetik gora Elantxoberantz abiatuko gara, aldapa bukatzean ezkerrera hartuko dugu Elantxobeko hilerriantza. Bertan Olaeta auzotik joatea gomendatzen dugu gero hilerri albotik doan pistatik jaisteko. Pixka bat beherago ibilbide orria daukazu.

### INFORMAZIO TEKNIKOAK:

- **Luzera:** 6,52 km.
- **Iraupena:** 3 ordu.
- **Desnibel positiboa:** 250 m.
- **Zailtasun teknikoa:** baxua.
- **Zailtasun fisikoa:** baxua.

### IBILBIDEAREN IRUDIAK:



### IBILBIDE ORRIA

<b>Irteera:</b> Atxurkulu-Ogoño.	<b>Mendilerroa:</b> Ogoño	<b>Data:</b>
----------------------------------	---------------------------	--------------

	<b>Lekua</b>	<b>Norabidea</b>	<b>Deskribapena</b>
<b>1</b>	Ibarrangeluko eliza	N330E	Ibarrangeluko elizatik errepide printzipaletik gora egingo dugu, Elantxoberako bidea hartuz.
<b>2</b>	Bidegurutzea	N310E	Aldapa amaieran Bizkaibuseko markesinan ezkerrera eta gorantza doan bidea hartuko dugu. Marka zuriak eta horiak jarraituko ditugu errepide nagusitik desbideratu barik.
<b>3</b>	Hilerria	N310E	Elantxobeko hilerrira heltzen garenean Olaeta jartzen duen auzorantz abiatuko gara.
<b>4</b>	Olaeta auzoa	N340E	Olaeta auzoko azken baserrira heldu baino lehen asfaltoa utzi eta ezkerrera dagoen lurrezko pistatik joango gara.
<b>5</b>	Desbideratu	N360E	Hesia daukan landa batetik igaroko dugu. Hesiaren amaieran mahai bat ikusiko dugu, bertan eskumako bidetik desbideratuko gara.
<b>6</b>	Bidegurutzea	N350E	Aurreko puntutik gutxira seinale bertikala ikusiko dugu. Markak jarraituz Ogoño jartzen duen norabidea hartuko dugu..
<b>7</b>	Tontorra	N210E	Azken puntutik zuzen, desbideratu gabe 10 minututan tontorrera helduko gara. Jaitsiera etorri garen lekutik hasiko dugu.
<b>8</b>	Bidegurutzea	N250E	6. puntuan gaude. Igo dugun leku beretik jaitsi gaitzke edo beste aukera bat hartu dezakegu. Bigarren aukera hartuz gero Ibarrangelu jartzen duen norabidea hartu.
<b>9</b>	Desbideratu	N160E	Bifurkazioan harrizko pista hartu behar dugu. Bide nagusitik desbideratu barik hormigoizko pista gogor batetik hilerrira helduko gara.
<b>10</b>	Hilerria	N130E	Markak jarraituz etorri garen errepidetik Ibarrangelura helduko gara.